



1. Zer da Adimen Lehiakorra?

1.3 Norentzat?

1. Sarrera

Erakunde guztiek burutzen dute era bateko edo besteko zaintza, besteak beste, azoketara joatea, lehiakideei buruzko informazioa irakurtzea, lege aldaketak zaintzea... Hala ere jarduera hau maiz antolatu gabe eta momentu puntualetan soilik egiten da, metodorik gabe eta denboran jasangarria izan gabe.

Zaintza Adimen bihur dadin, informazioaren azterketa eta banaketarekin batera egin behar da, erabakiak hartzeko uneetan txertatuz.

Testuinguru honetan, erakundeak Adimen Lehiakorra egin dezakete informazio baliagarria identifikatuta eta bere exekuziorako baliabideak egokituta.

2. Adimen Lehiakorra EAEko enpresa ertainetan (Pymeetan).

Juan Carlos Aldasorok egin eta 2013ko azaroan argitaratutako doktore-tesiaren arabera, *'Análisis de la situación actual y perspectivas de futuro de la implantación de sistemas de Inteligencia competitiva en las pymes industriales vascas'*, zeinetan euskal pymeen AL jardueraren azterketa burutu zen, **"erakundeen AL jarduera burutzeko duten motibo garrantzitsuena, industria sektorearen joeren berri izatea, produktu berriak garatu ahal izatea eta planifikazio estrategikoaren prozesuan laguntza eskaini ahal izatea dira"**.

Gainera, **"AL prozedura formal bat izatea ez dago erlazionatuta ez enpresaren jarduera ekonomikoarekin, ez maila teknologikoarekin ez eta langile kopuruarekin ere"**.

Ikerketa berean bestalde, ondorengoa azpimarratzen da: **"ikertuak izan diren enpresen gehiengoak positiboki baloratu du AL jarduera, berrikuntzak sortzen, erabakiak hartzerakoan informazio baliotsua eskaintzen, enpresaren lehiapozizioa hobetzen, merkatu berrietan sartzen eta estrategia egokiak diseinatzen lagundu duelako"**.

Hala ere, PYME askok oraindik ez dakite zer den AL eta AL jarduerak burutzen badituzte ere, ez daude ez antolatuta ezta prozedimentatuta ere. Ondorioz, jarduera honek eskaini ditzakeen onurak gutxitu egiten dira.

3. EAEko enpresa ertainetan AL txertatzeko gomendioak

Lehenbizi, **Alrekiko sentsibilizazioa eta AL kultura sortzea** ezinbesteko dira, kontzeptutik abiatu eta definizioaren eta AL prozesuaren ezarpenera arte, ALren formazio aplikatua bultzatuz.

Gainera, beharrezkoa da **AL egiteko dauden baliabideak pymeen eskuetan jartzea**, aukera dagoenean ekonomikoki laguntza eman ez tresharen erabilera sustatzeko, bai eta AL ekintzak egiteko ere.

Operatiboki, ondorengoak gomendatzen dira:

- AL jarduera enpresaren kudeaketa estrategikoarekin lotzea eta Zaintza Faktore Kritiko gutxi batzuk identifikatzea, modu honetan AL jardueraren hasiera murriztuz.
- Informazioaren azterketa, banaketa eta erabaki unean txertatzea erraztuko duen tresna sinple bat lortzea, informazioa jasotzen eta iragazten lagunduko duena.
- Pymearentzat informazio iturri eskuragarriak ezagutzea eta iturri horiek erabiltzea.
- Beharrezkoa denean kanpo laguntzaileek izatea, AL prozesua diseinatzen eta ezartzen laguntzeko.